

## **PRENTSA-OHARRA**

### **LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK ISUNAK JARRI DIZKIE ATAP GARRAIOLARIEN ELKARTEARI ETA CECOTRANS ETA TPS ENPRESEI BILBOKO PORTUAN EGINDAKO LEHIAREN AURKAKO JOKABIDEENGATIK**

Lehiaren Euskal Agintaritzak frogatutzat jo du Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aurkako arau-hauste oso larri bat egin zela. Arau-haustea honako hau izan zen: Asociación de Transportistas Autónomos del Puerto de Bilbao (ATAP) elkarteko kideek hartutako erabaki kolektiboa, Maersk Lines ontzi-enpresari garraio-zerbitzuak ematea eteteko, enpresa horrek garraiolariekin daukan merkataritza-politikari erantzunez.

Centro de Contratación de Transportes de Vizcaya, S.Coop. (CECOTRANS-BIZ) eta Transportes del Puerto de Santurtzi, S.Coop. (TPS.COOP) kooperatibek jarraitu zioten boikotaren erabaki horri, Maersk Lines ontzi-enpresak kontratatutako garraio-zerbitzua emateari uko ziotelako. Garraio-zerbitzu hori ontzi-enpresak kudeatzen zituen bi itsasontzietako edukiontzia deskargatzekoa zen.

Lehiaren Euskal Agintaritzak isun hauek jarri dizkie: ATAP elkarteari, 800.000 euroko isuna; CECOTRANS-BIZ kooperatibari, 508.344 eurokoa; eta TPS.COOP kooperatibari, 248.308 eurokoa. Halaber, jokabide arau-hauslea bertan behera utzi eta etorkizunean antzeko jokabideak ez egiteko agindu die.

BILBO, 2016KO URTARRILAREN 14A.

Asociación de Transportistas Autónomos del Puerto de Bilbao (ATAP) elkarteak 2014ko ekainaren 24an iragarri zien Bilboko Portuko Agintaritzari, Portuko Zamaketariak Kudeatzeko Elkarte Anonimoari, Portuko garraiolari-enpresei eta Lan-Agintaritzari bere kide guztien batera eta aho batez hartutako erabakia: Maersk Lines ontzi-enpresak kudeatutako itsasontziei zerbitzua ez ematekoa. Elkaratearen arabera, erabakiaren zergatiak ontzi-enpresaren merkataritza-politikaren aldaketa batzuk izan ziren, garraiolarien interesei kalte egiten zietelako. Erabaki hori 2014ko uztailaren 4an sartuko zen indarrean eta mugagabea zen. Nahiz eta ATAP elkarteak 2014ko uztailaren 8an jakinarazi bere iragarkia bertan behera uztearen asmoa, CECOTRANS-BIZ eta TPS.COOP garraiolarien kooperatibek, ATAP elkaratearen kide batzuekin, Marsk ontzi-enpresaren jarduerari boikota egin zioten, 2014ko uztailaren 18, 25 eta 26an.

Jokabide horiek ukitutako garraio-zerbitzua garraio horizontala delakoa da eta salgaiak itsasontzien alde batetik Portuko biltegi-gunera garraiatzean datza.

Jokabideak Bilboko Portuko edukiontzien gunearen barruan gertatu ziren. CECOTRANS-BIZ eta TPS enpresek zerbitzu horren %95 dute elkarrekin.

Zerbitzu hori ematen duen hirugarren enpresak salaketa bat aurkeztu zuen 2014ko uztailaren 17an Santurtziko Goardia Zibilaren aurrean, bere bi kamioik jasandako kalteengatik.

Bilboko Portuaren funtzionamendua dela eta, enpresek era koordinatu batean zerbitzu hori emateari uko egiten badiote, eta Atap elkarteko kideek gauzatzen badute ukoa, ia ezinezkoa da erantzuna ematea boikotari. Egoera horrek Elkartek iragarritako boikotaren eraginak larriagotu zituen, eta, aldi berean, aukera eman zion, legearen aurka, enpresarenganako presio gisa erabiltzeko, garraiolarietarako merkataritza-baldintza hobekak lortzearren.

CECOTRANS-BIZ eta TPS enpresek boikota gauzatu zuten. Uztailaren 18an ez zituzten haiekin kontratatutako hiruna kamioiak bidali. Uztailaren 25 eta 26an eskatutako hiru kamioietatik bat bakarrik bidali zuen bakoitzak.

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) bere ebazpenean ondorioztatu egin du ATAP, CECOTRANS-BIZ eta TPS entitateen jokabideak Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aurkako arau-hauste oso larriak direla. Lege horrek debekatu egiten ditu akordio oro, erabaki edo gomendio kolektibo oro, hitzartutako jardunbide oro edo jakinaren gaineko jardunbide paralelo oro, horien helburua merkatuetako lehia eragotzi edo murriztea bada.

LEAren ebazpenak isun hauek jarri dizkie aipatutako entitateei: CECOTRANS-BIZ kooperatibari, 508.344 euroko isuna eta TPS.COOP kooperatibari, 248.308 eurokoa, enpresa bakoitzaren 2014ko negozio-bolumenaren %2a dena; ATAP elkarteari, 800.000 euroko isuna, bere kide-kopuruaren arabera eta kide guztien negozio-bolumenaren zenbatespena eginez.

Lehiaren Euskal Agintaritza Administrazioako izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jardura ekonomikoei dagokienez.